

MUNDIALA. Ekainaren 29an Iruñean egingo den kalejira erraldoira joateko deia egin dute

Agiri bateratua plazaratu dute Iparraldeko eta Hegoaldeko pilotariek

«Selekzioak, Mundialean eta Nazioarteko Federazioan ordezkatzuta egoteko eskubidea du»



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Iparraldeko eta Hegoaldeko pilotarien ordezkariak zabala bildu zen atzo Barañainen.

Eduarne Elizondo | **BARAÑAIN**

Euskal pilota selekzioaren alde Iparraldean eta Hegoaldean sortu den mugimenduak agerrialdi bateratura egin zuen atzo Barañainen, eta adostutako agiria ezagutzera eman zuen.

Bi aldarrikapen nagusi bildu dituzte agiri horretan Euskal Herri osoko hainbat pilotari eta pilota taldek, Bidatz Epelde pilotariak ezagutzera eman zuten: «euskal pilotariek Iruñeko Mundialean euren selekzio propioarekin lehiatzeko eskubidea dutelako euskal selekzioa ofizial» izan dadin, batetik, eta, bestetik, «euskal pilotak Nazioarteko Federazioan beste selekzioek dituzten eskubide eta be-

tebeharrekin ordezkatzuta egoteko eskubidea» dutela.

Euskal selekzioaren ofizialtasuna aldarrikatzeko, hain zuzen ere, ekainaren 29an. *Euskal selekzioaren alde, Iruñea da bidea* lelopean antolatu kalejiran parte hartzeko deia egin zioten gizarte osoari.

Iruñean abuztuan ospatzen den mundiala dela eta euskal selekzioaren alde sortu mugimendua handituz joan da azken hilabeteotan. Iparraldeko pilotarien ordezkari Mikel Funosasek gogoratu zuen otsailan haietako seik Frantziako selekzioarekin parte hartzeari uko egin ziotela. eta, geroztik, beste hainbaten sostengua jaso dutela. «Badira Frantziarekin aritzea

erabaki baina gure aldarrikapenarekin bat egin duten pilotariak», azaldu zuen.

«Borondate kontua»

Belate elkarteko buru Martin Ibarrek ere azpimarratu zuen Nafarroan ehun bat sinadura bildu zituztela berriki oso tarte laburrean euskal selekzioaren alde, eta, kopurua igo egin dela geroztik. Argitu zuen pilotarien artean «hainbat sentsibiltate» daudela baina gehienek euskal selekzioaren aldeko aldarrikapenarekin bat egiten dutela.

Mundiala hasteko denbora gutxi falta da eta Ibarrek onartu zuen selekzioaren aldeko mugimenduak egin urratsak «maila sinbolikoan» gelditzeko arris-

ESANAK

MARTIN IBARRA

(Belateko burua)

«Pilotariok ezin dugu gehiago egin baina erakundeei exijitzen ahal diegu urratsak egin ditzaten»

MIKEL FUNOSAS

(Pilotaria)

«Badira Frantziako selekzioarekin aritzea erabaki baina gure aldarrikapenarekin bat egin duten pilotariak»

BIDATZ EPELDE

(Pilotaria)

«Euskal pilotak Nazioarteko Federazioan ordezkatzuta egoteko eskubidea du»

kua dagoela. «Pilotariok ezin dugu gehiago egin; baina erakundeei exijitzen ahal diegu urratsak egin ditzaten».

Euskal selekzioa lortzea «borondate kontua» dela azpimarratu zuen eta horren aurka Nazioarteko eta Espainiako federazioen «jokabide gaiztoa» salatu zuen. Euskadikoak ere askotan «planteamendu okerrak» egin dituela erran zuen.

TXOKOAN

ERREMONTEA

Bereziartua eta J. Etxeberria Udaberri Torneoko lehen finalistak

Urretabizkaia I.a-Urkoren kontra jokaturako Udaberri Torneoko finalerdia irabazi zuten atzo Bereziartua-J. Etxeberriak Uharteko Euskal Jai Berri pilotalekuan. Partida bakar bat ere galdu gabe, horrenbestez, finalerako sailkatu dira. Beste finalerdia, gaur zortzi jokaturako dute Elizalde-Aizpurua II.ak eta Aguirresarobe-A. Lekunberriek, Galarretan.

JAIALDIAK

OSTIRALEKO EMAITZAK GETXO.

Ibilaldiaren aldeko Torneoaren finala: Koka-Zearra 15; Olaizola II.a-Ruiz 22. Salaberria-Begino 22; Arbizu-Galarza VI.a 9.

LARRABETZU.

Gonzalez-Auxkin 22; Barberito VI.a-Eulate 10. Titin-Zezeaga 22; Agirre-Lasa III.a 16.

AZPEITIA.

Martinez-Urko 31; Matxin III.a-Etxeberria II.a 40. Zalakain-Aizpurua II.a 20; Larrea-Badiola 40.

CARMELO BALDA.

Beaskoetxea-Kevin 23; Berraondo-Egiguren I.a 25. Lander-Felix 30; Konpa-Barrondo 25.

ATZOKO EMAITZAK BERMEO.

Beloki II.a-Bengoetxea V.a 22; Leiza-Albizuri 15. Unanue-Ruiz 18; Olaizola II.a-Armendariz 22.

BERGARA.

Saralegi-Pinedo 15; Baleztena-Auxkin 22. Capellan-Elkoro 22; Tirapu-Errasti 16. Haritz-Hirigoien 14; Azpiroz-Balardi 18.

GALARRETA.

Larrea-Barrenetxea II.a 29; Iturralde-Lander 35. Ezkurra-A. Lekunberri 38; Iñigo-Altuna II.a-Eizaguirre 40. *Udaberri Torneoa:* Urreta I.a-Urko 29; Bereziartua-Etxeberria III.a 40. Sarasua-Aizpurua II.a 21; Lezea-Zestau III.a 30.

EUSKAL.

Zalakain-Astibia 23; Matxin III.a-Gaztelu 35. Zeberio II.a-Lizaso 38; Elizalde-Altuna I.a-Etxabe 40. Bitoria-Auzmendi 37; Kalonge-Txikuri 40. Zeberio I.a-Ekiza 23; Agirresarobe-Mendizabal 30.

DEPORTIVO.

Alberdi I.a-Iriondo 30; Konpa-Goitia 15. Insausti-Ibarra 30; Urkia-Beldarrain 45. Casado-Fernando 40; Urkijo-Ziskar I.a 23.

GAURKO PARTIDAK

BERGARA. 17:00 (ETB1).

Alustiza-Begino / Gonzalez-Eulate. Koka-Armendariz / Xala-Zezeaga. Arbizu-Galarza VI.a / Berraondo-Bernal.

GARES. 12:30.

Ansotegi-Prado / Legorburu-Milikua.

ARRATSU. 12:30.

Ariznabarreta-Zubiaga / Ayo-Errandonea. **TORREHERMOSA. 18:30.** Garrido V.a-Txikito IX.a / Mikel-Nicolas. Martinez-Marin II.a / Urretabizkaia I.a-Iñurategi.

GALARRETA. 16:00.

Ziganda-Lander / Martinez-Astibia. Altuna II.a-Etxabe / Matxin-Elizalde-Aizpurua. Urretabizkaia anaiak / Bitori-J. Etxeberria. Iribarren-Etxeberria II.a / Agirresarobe-Zestau III.a.

ESKU-HUSKA. Euskaldunak nagusitu ziren valentziarren kontra Durangoko Ezkurdin jokatu desafioan

Olaizola II.a eta Ruizek irabazi dute Ibilaldiaren Torneoa

E. Telleria | **DONOSTIA**

Aspaldian askotan ari dira elkarrekin eta gehienetan maila aparta emanez. Aimar Olaizolak eta Patxi Ruizek irabazi zuten herenegun gauean Getxon jokaturako Ibilaldiaren Torneoa. Bertan egingo da Bizkaiko Ikastolen aldeko festa, eta festa izan zen ostiral gauekoa ere. Irabazleek, Koka eta Zearra hartu zituzten mendean (15-22).

Partida bizia eta polita izan

zen. Irabazleak joan ziren ia beti aurretik, nahiz eta Koka-Zearrak ez zuten inoiz amore eman. Ruizek bere eskuin kolpea inposatu zuen atzeko koadroetan, eta Aimar Olaizolak benetako erakustaldia eman zuen tantoak amaitzen aurrealdean, nahiz eta Kokak ere bere kalitatearen berri eman zuen.

Atzo ere jokatu zuten Aimar Olaizolak eta Patxi Ruizek, baina elkarren kontra. Bermeon, Arrain Eguneako ospakizunen

barruan, Unanuekin aritu zen Ruiz eta Armendarizekin Olaizola. Azken biak nagusitu ziren (18-22). Giro ederra Artza frontoian eta tanto ikusgarriak bi arretarien artean, nahiz eta goizuetarra nagusi zen, beste behin. Asteburu biribila harena.

Partida bitxia Durangon eta Errastik ezin irabazi Bergaran

Atzoko beste bi hitzordu garrantzitsuenak Durangokoa eta Bergarakoa ziren. Ezkurdi pilotalekuan, euskal pilotarien eta pilotari valentziarren arteko desafio bitxiak gozatzeko parada izan zen. Euskal pilota eta pilota

valentziarra nahasian, bi modalitateen erdibideko pilotak jarri eta ikuskizun ederra eman zuten Ariznabarreta-Errandonea eta Alvaro-Sarasolek. Kosta egin zitzairen euskal herritarrei piloten berezitasunetara egokitzeta, baina behin ohitu zirenean ongi atera zuten partida aurrera (25-32). Tanto bitxi eta ederrak.

Bestalde, Bergarako Mendekoste jaien hasieran, ez zuen Errastik bere bueltakoan garai-pena lortzerik izan. Nabaritu zuen bi hilabetezko geldialdia. Capellan-Elkoro nagusitu ziren bera eta Tirapuren kontra (22-16). Gaur ere jaialdia Bergaran.